

PRENTSA OHARRA

Beti-Jai eta Izarbidean elkarteen egoitzako igogailuan hobekuntza lanak egin ditu Markina-Xemeingo Udalak

Udalak landu asmo duen **Irisgarritasun Planari lotutako neurria** izan da

19.965,00 euroko kostua izan dute lanek (BEZ barne)

Aspaldiko eskaera bati erantzuna emanaz eta iazko udal-aurrekontuan finkatu bezala, Beti Jai jubilatuen elkarteen eta Izarbidean elkarteen egoitzako igogailua hobetzeko lanak aurrera eramanez Markina-Xemeingo Udalak. Izan ere, igogailua zaharkituta zegoen eta hainbat arazo zituen; besteak beste, ezinezkoa zen pertsona bat baino gehiagok aldi berean berau erabiltzea. Hala, egindako lanei esker, erabiltzaile bat baino gehiagok erabili ahalko dute igogailua aldi berean eta segurtasuna ere bermatuko da.

Udalak landuko duen **Irisgarritasun Planari lotutako hobekuntza** da honakoa. Izan ere, epe laburrera begira, herriko eraikin eta instalazioetan irisgarritasuna hobetzea da Udalaren asmoa, eta hartuko diren neurriak finkatzeko plan berria landuko da. Instalazio honen kasuan, gainera, aipatzekoa da beronen zenbait erabiltzaile mugikortasun murriztua duten kolektiboen parte direla (jubilatutak eta adimen urritasuna duten pertsonak). Zentzu horretan, behar-beharrezkotzat jo du Udalak igogailuan hobekuntza lanak egitea, **Markina-Xemein irisgarriago eta inklusiboago bat** lortzeko bidean.

19.965,00 euroko inbertsioa (BEZ barne) gauzatu da eta ORONA enpresak burutu ditu lanak. Hasiera batean jaso ziren hiru aurrekontu proposamenetatik garestiena eta osoena aukeratu zuen Udalak. Behin hobekuntza lanak gauzatu, egindako lanean balorazio positiboa egin dute erabiltzaileek.

Markina-Xemeinen, 2021eko urtarrilaren 4ean